



Antxintxikalarixak Oñatin

Zenbat mutil eta neska gazte ikusten dan gaur egunian Oñatiko kale eta auzuetan antxintxika! Eta hain gaztiak ez tiranak be bai. Kroserako zaletasuna ikaragarri gehitu da aspalditxuan gure herrixan. Eta horren erakusgarri hor dittugu Oñatin azkenengo urte honeittan antolaketan diran klase askotako karrerak: **Arrasate-Oñati**, **Oñatiko Duatloia** eta Gabon Zahar eguneko **San Silbestria** izango dira zaharrenak; baiña oraiñago inddar eta estimaziño haundixa hartuaz doiaz **Aloñarako igoeria** edota Korpus inguruan ospaketan dan **Naziñoarteko Herri Lasterketa** be, San Pedrotan egitten dan **Torreauzoko Krosa** eta beste batzuk ahaztu barik.

Orainguren adiñakua izan ez arren, lehenago be egon zan gure artian antxintxikarako afiziñua. Albisterik antxiñakuenak 1920ko hamarkadatik heldu xaku. Sortu barri zan **Aloña Mendi** kirol-alkartiak 1922ko San Iñazio egunerako asmau eben Oñatin ezaguketan dan lehenengo karrera ofiziala: **Ramon Adarraga** atleta hernaniar ospetsuak irabazi eben **Eugenio Bezares** madrildarraren aurretik. **Agustin Iñurritegi Martiñola** eta **Nikolas Txintxurreta** oñatiarrak be parte hartu euen. Karrerori asko gustau zan, itxuria, urte haretako San Migel jaixetako programan udalak beste lasterketa bat jarri eben-eta.

Bigarren karrera horretako argazkixa dogu gaurkua. Ezta ezezaguna, han eta hemen agertu eta erakutsi dalako. Baiña orain arte ezkekixen garbi noizkua zan, ezta zein zan be hor agiri dan korrikalari bakarra. Behin baiño gehixagotan gogoratu dogun Estanku Zaharreko **Pablo Ugarte** zanaren hitzaldi bateri eskerrak atara izan dittugu karrera-eguna eta irabazliaren izena: antxintxiketia, lehen esan dan lez, 1922ko San Migeletan antolatu zan, Errosarixoko Domekan, urrixaren 2xan eta meza nagusixaren ondoren. Hamabost-hamasei federautako atletek hartu euen parte. Irabazlia Errenterixako **Lagun Artea** taldeko **Migel Peña** izan zan eta bigarren **Erauntzeta** donostiarra sartu zan. Txantxikuarrak be portau ziran: **Gregorio Guridi Torre** bosgarren aillegau zan eta gorago aittatu dittugun Agustin Iñurritegi eta Nikolas Txintxurreta, berriz, seigarren eta zazpigarren.

Hurrengo urtietan afiziñua apur bat jaitsi bazan be, orduko **Oñate Sport** eta **Club Deportivo Oñate** kirol-alkartiak eutsi otsain neurri batian atletismo-klase horri. Bigarren Errepublikaren garaixan, bestiak beste, **Pio Ituarte Barrenzela** polifazetikua nabarmendu zan. Izan be Piok antxintxiketian ez ezik, bizikletan eta boxeuan be jardun eben-eta. Gerra ostian etzan aparteko antxintxikalaririk agertu 1960 ingurura arte. Orduan maristen **Maroñak** eta **Aloña Mendi** barrixak pultzakadaxua emun otsain krosari. **Luis Mari Samaniego** izan geben orduko lasterkalaririk onena. Harrezkerokua ezagunagua danez, eztogu hemen zihaztuko. Dana dala, eta hasieran esan doguna ziurketako, eztago begiratu besterik zenbat neska-mutil oñatiar dabillen azkenaldi honetan antxintxiketa-munduan. Eta mailla altu samarrian, gaiñera.

J. E.

Fotografixia Udaleko Argazki-fondokua da. Argibiderik gehixenak Pablo Ugartek 1977ko bagillaren 8xan **Txantxiku Txoko** alkartian emun eben hitzaldi batetik atara dittugu.

Zuzenketia: fan zan hilleko argazkixan goiko illaran ezkerretik zazpigarren agerketan dana ezta Antonio Mugartza bere anaia Luis baiño.